



Irudibidez



biolinjolea teilatuan



«Eraberritu ala hil». Horixe da dilema, hortik eta hemendik iragartzen zaigun leloa. Ezaugarri bere-berea du gaurko kulturak aldakortasuna. Maila guztietan gainera: ezagupideenean, produkzio-modu zein kontsumoarenean, eta baita gizarteko harremanetan ere. Hizkuntzen didaktika ez da, ez, salbuespen. Alor horretako aldaketen zurrunbiloak bete-bete harrapatu du. Eta jazoera hauek, sakonak izateaz gain, oso azkar gertatzen dira. Hain hala, ze harri eta zur eta beldurtuta uzten dute asko eta asko.

* * *

Ezezagunaren atarian erreakzio ezberdinak sortzen dira, eta ezinegona, urduritasuna eta beldurra koloreztatuko dute nolarebait une bitxi hori.

* * *

Hauexek ditugu *Obabakoak** liburuko protagonistaren hitzak, Benito eta Julianekin hizketan ari dela.

«Dударik ez arrazoi duela», esan nion Juliani nire gogoetak egin eta gero—. «Eta berorrek esandakoari ondorio bat aterako diot nik orain. Leku berriak ia beti etsai egiten zaizkigula, alegia. Villamedianara etorri eta aurreneko astean, esate baterako, herriko kaleetan gora eta behera ibili eta

munduko lekurik triste eta bakartiena iruditzen zitzaidan...»

«Federik gabeko jendez bete!» asaldatu zen Benito bapatean, Julianek ixiltzeko esan zion, uzteko niri jarraitzen.

«Ba, hori, leku hau nire aurka sentitzen nuela. Jakina, orduan begiz bakarrik ikusten nuen Villamediana: etxeak, ormak, leihoak eta antzeko gauzak bakarrik ikusten nizekion.

Ordea orain, banoa kaletik eta nahiz hutsik egon kale hori, ez zait bakartia iruditzen. Etxe bati begiratzearekin batera etxe horren barruan dagoena azaltzen zait sarri. Esate baterako, lehenago pasatzen nintzen berorren ataritik, eta atari bat besterik ez zitzaidan iruditzen. Orain berriz, handik pasa eta pentsatzen dut, *hauxe da Julianen ataria, hemen bizi da Villamedianako gizonik jakintsuena*. Alde handia dago, nik uste. Oso desberdina da buruarekin ikustea edo begiarekin bakarrik ikustea.» (160-161. orr.)

* * *

Zerk bultzatzen ditu zenbaitetan irakasleak aldaketen aurrean iragazkaitzak izatera? Ustel gertatu ote dira irakasle izateko egin ziren ahaleginak, arituaren arituz lortutako esperientzia, askotan porrot eginenez ikasitakoa? «Ez, inolaz ere» entzuten

* B. Atxaga (1988): *Obabakoak*, Erein, Donostia, 403 or.

du nork bere baitan. «Ideia berri horrek ez du zuretzat balio; beste batentzat behar bada bai».

Ideia berriek eta aldatzeko proposamenek berauen aurka egiteko indarrak suspertzen dituzte. Zerbait ikasi beharrean gaudela aitortzea geure ideia sisteman hutsune edo okerren bat dagoela aitortzea bait litzateke, aurrez ditugun ideien sistemari buruzko desafioa. «Sentipen hauek areagotu egingo dira zahartu ahalean, adimenean eta oroimenean gertaturiko bilakaerak direla medio» esango dute batzuek.

* * *

Jarrera iragazkaitzak dituzten irakasleak zorrotz izan dira kritikatuak, «erretzat» edota «burugogortzat» hartuak; baita beste muturrean daudenenak ere (snobistenak, beti gauza berrien bila dabiltzan batzuenak, entzundako edo irakurritakoa itsumustuan hartzen dutenenak). Zeren, bai ote dute azken hauek oinarri sendorik? Ez ote dute beren iparra galdu?

* * *

Iparra ez galtzea bezain garrantzitsua da berari jarraitzea, tokian tokiko eta unean uneko erabakiak hartu nahi badira. Erabaki hauek gehienetan ez dira ikusgarri horietakoak izango, lehendik bide onetik bait dabiltza iparrorratzari esker. Baina erabakiak hartu egin behar dira. Ondo dakigu ardoa, minduko ez bada, zahagi berrietan jarri behar dela noizean behin. Beharbada Obabako bisitariak dioena egiten ikasi beharko genuke: orain arte begiekin bakarrik ikusitakoa buruarekin ikusten, alegia.

* * *

Aldaketa eta ideia berrien aurrean jarrera iragazkor eta malguak izan behar ditu irakasleak, baina bere iraganari atzea eman gabe. Harekin etenez gero, irakaslearen bizitza teiltatu gaineko biolinjolearenaren antzeko litzateke.

Joanba Bergara